INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-3992

AGINDUA, 2001eko ekainaren 25ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, ekainaren 23ko 7/2000 Errege Lege-Dekretua onartu denez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren zerbitzua emateko araubide iragankorra ezartzen duena.

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egiteko aztertokien funtzionamendua eta jarduerak irailaren 1eko 294/1987 Dekretuak eta dekretu hori aldatzen duen ekainaren 30eko 178/1992 Dekretuak arautzen dituzte. 294/1987 Dekretua Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (ITV-IAT) egiteko aztertokiak instalatzeko araudi orokorra ezartzeaz gain, aztertokien funtzionamendua eta bertan egiten diren jarduerak arautzen ditu.

Telekomunikazioen arloan presazko neurriak ezartzen dituen ekainaren 23ko 7/2000 Errege Lege-Dekretuak aldaketa handi bat ekarri dio gaur egungo ibilgailuen azterketa teknikoko zerbitzuaren kudeaketa sistemari; izan ere, 7/2000 Errege Lege-Dekretuak xedatu du partikularrek ere egin dezaketela ibilgailuen azterketa teknikoa, baldin eta autonomia erkidegoak baimena ematen badie. Baimen hori emateko, ordea, titularrak ezinbestean egiaztatu beharko ditu erregelamendu bidez zehazten diren betekizun guztiak.

Bestalde, kontuan hartzekoa 7/2000 Errege Lege-Dekretuak aurreikusten duela lehendik dauden emakidadunei ez zaizkiela emakida-tituluak iraungiko eta lehen bezala jarraituko dutela. Hala ere, ez du berariazko araubide iragankorrik aurreikusten.

Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu berariazko araubide bat ezartzea, aldaketa ahalik eta egokien egin dadin, bai eta araubide horretan kontuan izatea lehendik dauden emakidadunekin ezarritako kontratu harremanak ere; izan ere, horrela jokatu ezik, kalte handia egin ahal izango zaie interes publikoei.

Araubide iragankor hori ezartzea beharrezkoa da emakida bidezko sistema ezin baita zati batean bakarrik mantendu edo sistemako zenbait osagai garrantzitsu kenduz mantendu. Gainera, araubide hori beharrezkoa da, segurtasun juridikoaren printzipioa eta arauen atzeraeraginik ezaren printzipioa errespetatu nahi badira.

Autonomia Erkidego honek eskumen esklusiboak ditu industria gaietan (Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.30 artikulua), eta eskumen horrek ibilgailuen azterketa teknikoa emateko jarduerak arautzeko gaitasuna aitortzen dio. Beraz, begi bistakoa da Euskal Autonomia Erkidegoak baduela araubide iragankor hau ezartzeko eskumena. Bestalde, araubide ho-

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-3992

ORDEN de 25 de junio de 2001, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se establece el régimen transitorio de prestación del servicio de Inspección Técnica de Vehículos, como consecuencia de la aprobación del Real Decreto-Ley 7/2000, de 23 de junio.

El funcionamiento y actividades de las Estaciones de Inspección Técnica de Vehículos, se encuentra regulado por el Decreto 294/1987, de 1 de septiembre, por el que se establecen las normas generales de instalación de las Estaciones de Inspección Técnica de Vehículos (ITV-IAT) y se regula el funcionamiento y actividades a desarrollar por dichas Estaciones, así como por el Decreto 178/1992, de 30 de junio, por el que se modifica y complementa el anterior.

Por Real Decreto-Ley 7/2000, de 23 de junio, de Medidas Urgentes en el sector de las Telecomunicaciones, se ha introducido una sustancial modificación del actual sistema de gestión del servicio de inspección técnica de vehículos, al establecerse que la ejecución material de las inspecciones podrá ser realizada, también, por particulares, que cuenten con la debida autorización de la Comunidad Autónoma, autorización que deberá concederse siempre que el titular acredite el cumplimiento de los requisitos técnicos que reglamentariamente se determinen.

Resulta fundamental tener en cuenta que, el referido Real Decreto Ley, prevé la continuidad por parte de los antiguos concesionarios, sin declarar extinguidos sus títulos concesionales, si bien no contempla un especifico régimen transitorio.

Por lo tanto se hace necesario establecer una regulación especifica, que asegure una adecuada transición, teniéndose en cuenta las relaciones contractuales existentes con los actuales concesionarios, a los efectos de evitar las lesivas consecuencias que, en caso contrario, se producirían a los intereses públicos.

La necesidad de este régimen transitorio se fundamenta en la medida en la que el sistema concesional no puede mantenerse en parte o excluyendo alguno de sus componentes sustanciales, y en la necesidad del pleno respeto a los principios de seguridad jurídica y de irretroactividad de las normas.

Partiendo de la competencia exclusiva de esta Comunidad Autónoma en materia de industria (Artículo 10.30 del Estatuto de Autonomía), competencia que le habilita para regular la actividad de prestación del servicio de inspección técnica de vehículos, resulta evidente que es competente, también, para regular el referido régimen transitorio, régimen que debe tener en

rrek kontuan hartu beharko ditu lehendik finkatuta dauden emakiden egoera juridikoak.

Araubide iragankor hau ezartzen da, orain arte emandako tituluak indarrean jarrai dezaten eta eraginkorrak izaten jarrai dezaten, harik eta emakida-tituluak iraungi bitartean. Era berean, araubide honek atzeratu egiten du operadore berriak sartzeko epea, egun emandako emakidak amaitu eta iraungi arte.

Ondorioz, eta kontuan hartuta ekainaren 23ko 178/1992 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoak Industria eta Energia sailburuari (gaur egun Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari) ematen diola dekretua garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena, honakoa

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Ekainaren 23ko 7/2000 Errege Lege-Dekretuko xedapen iragankorrak xedatutakoaren arabera, Errege Lege-Dekretua indarrean sartu zenean Euskal Autonomia Erkidegoan lehendik emanda zeuden emakidek orain arteko araubide bera izango dute, harik eta emakida kontratua bukatu arte. Horrez gain, emakidaren baldintzak ere berdin jarraituko dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.– Indargabetu egiten da Agindu honen maila bereko eta beheragoko edozein xedapen, baldin eta Aginduan ezarritakoarekin kontrajarrita badago.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2001eko ekainaren 25a.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

cuenta las situaciones jurídicas concesionales ya consolidadas.

La adopción de un régimen transitorio implicará que, durante el periodo que falte hasta la extinción de los títulos concesionales, se pueda mantener la vigencia y eficacia de los existentes, quedando diferida la entrada de nuevos operadores al transcurso y finalización de las actuales concesiones.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Final Primera del Decreto 178/1992, de 30 de junio, en la que se faculta al Consejero de Industria y Energía (hoy Industria, Comercio y Turismo) para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para desarrollar el referido Decreto,

DISPONGO:

Artículo Único.– De acuerdo con la Disposición Transitoria del Real Decreto-Ley 7/2000, de 23 de junio, las concesiones que se encontraban otorgadas en el País Vasco a la entrada en vigor del referido Real Decreto, mantendrán el mismo régimen hasta la finalización del contrato de concesión, en los términos y condiciones en las que se concedieron.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Única.– Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de junio de 2001.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.